

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

2900

EBAZPENA, 2020ko uztailaren 9koa, Arrantza eta Akuikulturako zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Culmanor-en itsas amuarrainak hazteko proiektua.

Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzan, espediente hau izapidetzen ari da: itsas amuarraina (Salmo trutta trutta) haztea Donostian.

Horrenbestez, Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 36. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Ondoko lerroetan aipatzen den espedientea jendaurrean jartzea, 30 egunez, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Espedientea: Culmanor-en proiektua, itsas amuarraina (Salmo trutta trutta) hazteko. Tokia: Donostiako Agitin.

Proiektuak ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar du.

Proiektua onartzeko organo eskuduna Eusko Jaurlaritzaren Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza da.

Bigarrena.— Espedientea helbide honetan dago ikusgai:

http://www.euskadi.eus/jendeaurreko_erakustaldia/culmanor-proiektua/web01-a2arraku/eu/

Eskuragarri dago, baita ere, Eusko Jaurlaritzaren Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzan (Vitoria-Gasteiz, Donostia kalea 1, Lakua I Eraikina, 3. solairua). Bertan eskura daiteke proiektuaren gainera informazioa.

Alegazioak aurkez daitezke 30 egun balioduneko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik aurrera, egoitza elektroniko honetan: pesca-dec@euskadi.eus

Edo, bestela, Eusko Jaurlaritzaren Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, Lakua I eraikina, 3. Solairua, Vitoria-Gasteiz).

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 9a.

Arrantza eta Akuikulturako zuzendaria,
LEANDRO AZCUE MUGICA.